

MARTXA

1/ Donostiyako Alkate Jaunak
emanikan lizenziya,
goizetik datoz Jardineruak
kantatzen martxa berriya:
konpasa artubaz umore onez
alegratzeko erriya,
soñuba dute guztiz ederra
beren artean jarriya.

2/ Joxe biyak eta Bartolo
jardiñetako maisubak
antziñatikan gure artean
izan dirade deitubak:
beti lanian aurtasunetik
neke izerdiyan oitubak,
buruko illea eta bizarra
dakazkite zuritubak.

OTSASTETXOA

1/ Donostiyara Jardineruak
baratza eder batekin
apaindurikan datoz guztiyak
beren Jardinerarekin.

2/ Iñork nai badu belar onikan,
naiz dala lore aziya,
gure baratzen arkituko du
asma diteken guztiya.

3/ Zer nai gauzatik lore ta belar
ugari dauka jardiñak:
ispligu gozo, azitrai berde,
arros, klabelin, jazmiñak.

4/ Albaraka ta lirio eder,
bioletatxo morea,
oreganoa, limoi belarra,
naiz laranjaren lorea.

EUSKARITXOA

Zarrak eta gazteak
ernai soñubari
bozaroki onean
guztiyok kantari:
batere larga gabe
nork bere lanari,
arreta baratzako
lore belarrari,

ZORTZIKOA

1/ Emanikan Jardiña
zer dan aditzera,
orain soñekoakin
degu asiyera:
zer gauza ederra dan
burutik oñera
Jardiñeruak egun
duten jantziyera.

2/Gizasemeak dute
aitzur bat eskuban,
lore eta zintakin
txapela buruban:
pañubelua beti
leneko moduban,
txalekua beterik
mirtoz inguruban.

3/ Lazadakin gerriko
sedazko gorriyak
alkandoren gañetik
ederki jarriyak:
ankinazko galtzakin
galtzerdi zuriyak,
kolorezko zapatak
gutziz egokiyak.

4/ Ez daude eskasago
gure emakumeak,
lastozko txapelakin,
luzean illeak:
lorez eta belarrez
entero beteak
zintaz estalirikan
soñeko trajeak.

5/ Zesto bana eskuban
bakoitzak arturik,
nork bere gizonari
lagun egin nairik,
gabaz eta egunaz
beti nekaturik,
beren aurraren malurak
ezin gelditurik.

6/ Gure seme ta alabak
urte gutxirekin
nekean asten dira
bat bestearekin
etxeko atariyan
baratzatxoakin
gero lana egiteko
aita ta amarekin.

EUSKARITXOA

*Biba ostegun gizen,
biba iñauteriya,
biba Jardiñeruak,
biba Donostiya,
biba pobre ta aberats
munduko guztiya.*